

Kontu kontari Ikaztegietan eta Alegian

IKAZTEGIETA/ALEGIA. DV. Loretxurekin iritsi zen Idoia Sanchez Ikaztegietako liburutegira. Ipuin kontaketa guztietara berarekin eramaten duen panpina da Loretxu. Ipuinak kontatzen hasi aurretik, Idoiak liburutegian zeuden umeei galdetu zien ea Loretxu beraiekin eser ote zitekeen, gehiago gustatzen zitzaiolako panpinari kontaketa publikoaren artetik ikustea. Eta horrelaxe egon zen, Ikaztegietako mutil gaztetxo batzuekin eserita.

Horrelaxe hasi zuen Idoiak Ikaztegietako liburutegian eskaini zuen ipuin kontaketa saioa. Haur eta gaztetxo asko inguratu ziren bertara, baita zenbait heldu ere, txikienenei laguntzera. Kontua da, batzuen zein besteen artean, leporaino bete zutela liburutegia eta han ez zela askoz gehiagorentzako lekurik geratu.

Bi saio egun berean

Ikaztegietan hasi zuen Idoiak atzoko ipuin kontaketen saioa. Baina hura bukatu bezain laster, arrapalada batean, Alegiako Udal Liburutegira joan zen, han ere zain baitzituen makina bat haur eta gaztetxo, belarriak erne erne jarrita.

Lau urte daramatza tolosar honek ipuin kontaketa saioak eskainiz, baina berak esan zigun bezala, saioetatik aparte ia bizitza osoa daramat ipuinak kontatzen. Emanaldi dexente eskaintzen ditu Idoiak urtean zehar, baina aurrean adina sekula ez.

Bera bakarrik ibiltzen da batetik bestera ipuinak kontatzen eta saioak ere berak bakarrik prestatzen ditu. Saio hauetako bat nola prestatzen den galdetu genionean oso garbi esan zigun hasteko zer egin behar den: Ipuinak irakurri, ipuin asko irakurri. Irakurtzen zoazen heinean begiratu behar da ea ipuinak ezer bitxirik ba ote duen, mezuren bat transmititzen ote duen, umeak entretenitzeko beharrezko osagairik ba ote duen... Noski, hau dena ipuina kontatu behar diezun umeen adina kontutan hartuz erabaki behar da, adina bat edo bestea izan, umeek gauza ezberdinak eskatzen baitizkizute.

Dena den, nahiz eta ipuinak prestatuta eraman, saio irekiak egiten ditu Idoiak. Etortzen den ume kopuruak, hauen adinak, sortzen den giroak... faktore horiek guztiek eragin handia dute saioak hartuko duen norabidean. Horregatik, Idoiak ezaugarri guzti horiek kontutan hartuta, ipuin batzuk edo besteak kontatuko ditu eta ondorioz, saioa modu batera edo bestera aterako zaio.

Aktore lana baliagarri

Idoia Sanchez aktorea da eta berak azaldu digun bezala, aktore lanak

erakutsi didan guztia erabiltzen dut ipuin kontaketen, asko balio baitu horretarako. Baina bere iritziz, ipuin kontalari batek ez du zertan aktore izan. Gerta liteke, eta gertatzen da, aktore ez den batek komunikatzeko eta emozioak transmititzeko sekulako ahalmen eta gaitasuna izatea eta azken finean, hori da ipuin kontalari batek behar duena, komunikatzeko eta transmititzeko gaitasuna. Etxean dugu adibidea, amona eta ama asko, aktore izan gabe sekulako ipuin kontalariak dira.

Idoiarentzat, lan honen alderik zailena bidea irekitzea da, norberaren burua ezagutzera ematea, alegia. Behin hori lortuz gero, niretzat behintzat, lan hau zoragarria da. Askok disfrutatzen dut ipuinak kontatzen.